# 12/2024 TXOSTENA, URRIAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.

**XEDEA: ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN ETA NEXT GENERATION FUNTSEN FINANTZAKETAREN AGIRIEN ZIRRIBORROAK, KONTRATU HAUEI BURUZKOAK: OBRA-KONTRATUAK (PROZEDURA IREKIA ETA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA), ZERBITZU-KONTRATUAK (PROZEDURA IREKIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA ETA PROZEDURA NEGOZIATUA) ETA HORNIDURA-KONTRATUAK (PROZEDURA IREKIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA ETA PROZEDURA NEGOZIATUA).**

## I.- AURREKARIAK.

Indarrean jarri da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (aurrerantzean, SPKL). Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Ondorioz, lehen nahitaez sartu behar ez ziren alderdi batzuk sartu behar dira baldintza-agirietan, eta, halaber, berriro definitu behar dira aztergai ditugun prozedurako eta kontratu motako izapide eta figura batzuk.

Era berean, 2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko Next Generation EU Europako suspertze-tresna onartu ondoren, 2020ko abenduaren 31ko BOEn argitaratu zen 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onesten dituena. Tresna horren helburua da Europako funtsekin finantzatu daitezkeen jarduketen diseinua eta egikaritzea erraztea, bai eta plan hori ezartzen laguntzea ere.

Ondoren, 2021eko irailaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean honako hauek argitaratu ziren: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) kudeaketa-sistema eratzen duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, aipatutako planeko neurrien mugarri eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzeko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 112. xedapen gehigarria aplikatzeko beharrezkoak diren alderdiak garatzen ditu. Agindu horretan, «data mining» tresna informatikoa jasotzen da. Tresna horrek ZAEAn du egoitza, eta prebentzio-neurri gisa jarduten du; izan ere, balizko interes-gatazka eta iruzurra murrizten ditu, eta interes-gatazkaren arriskua duten kontratu-adjudikazioei edo dirulaguntza-emateei buruzko erabakietan izan daitezkeen eraginak ezabatzen ditu.

Azkenik, 2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekideari eta presentzia orekatuari buruzkoa; zehazki, azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoa. Lege organiko horrek aldaketa ugari sartzen ditu gure ordenamendu juridikoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren egikaritza erreala eta eraginkorra lortzeko, eta presentzia edo osaera orekatuaren printzipioan sakontzeko, batez ere bizitza politiko eta ekonomikoaren eremu erabakitzaileetan.

Baldintza-agirien ereduak egitean kontuan hartu behar dira, eta, ahal den neurrian, islatu egin behar dira kontratuen inguruko errekurtsoen administrazio-auzitegien ebazpenak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bereziki Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpenak, bai eta autonomia-erkidegoko, Estatuko eta, batez ere, Europar Batasuneko jurisprudentzia ere.

Arau-aldaketa horiek guztiek justifikatzen dute orain aztertzen ari garen administrazio-klausula partikularren agirien zirriborroak haietara egokitzea, eta Batzorde honek horri buruzko txostena emango du.

## II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du administrazio-klausula partikularren agirien zirriborroei buruzko txostena emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluaren a) letraren 4. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu horren 30. artikuluaren arabera, Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak du dokumentu horren gaineko txostena emateko eskumena.

## III. – EDUKIA.

Zirriborroen testuak eduki hau du: kontratuaren klausula bereziak, baldintza orokorrak eta eranskinak.

Kontratuaren klausula bereziak hiru multzotan egituratuta daude: prestazioaren ezaugarriak, adjudikazio-prozeduraren ezaugarriak eta beste zehaztapen batzuk.

Kontratu bakoitzaren baldintza orokorrak honela daude banatuta: Kontratuaren objektua eta gai orokorrak; lizitazioa; gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak balioztatzea; kontratua adjudikatzea eta formalizatzea; kontratua betetzea; azkentzea; eta, azkenik, gorabeherak eta egintzen berrikuspena.

Azkenik, kontratazio-prozesuan laguntzeko zenbait eranskin ere badaude, honako hauek argitze aldera: agiriaren alderdi jakin batzuk adierazteko zer informazio ekarri behar den; gutun-azal bakoitzean zer dokumentazio sartu behar den eta eskaintza onena duen lizitatzaileak edo kontratua betetzeko fasean dagoen kontratistak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

## IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Baldintza-agirien proposamen hauetan errespetatu den arau-esparrua Europar Batasuneko kontratazioaren arloko zuzentarauak dira (horien transposizio partziala egin da), eta zuzentarau horietako printzipioak izan beharko dira kontratatziorako baldintza-agiri guztien oinarria. Hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, Kontratazio Publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzentaraua indargabetzen duena.

Testua bat dator Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak agindutakoarekin eta lizitazio publiko bat prestatzeko eta argitaratzeko behar diren agiriak egiteko xedatzen denarekin.

Adierazi behar da egindako aldaketa nagusiak praktikoak baino ez direla, eta horien bidez prozesua arindu eta hobetu nahi da, behar den neurrian.

Bereziki nabarmendu behar da genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan txertatzeari buruzko jarraibidera egokitzea. Gainera, betearazteko baldintza berezi gisa sartu da berariazko prebentzio-neurriak hartzea sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean.

Era berean, sartutako berrikuntza nagusietako bat emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoak bultzatutakoa da, zehazki azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoa. Aipatu 2/2024 Legeak egindako eta pleguetan sartutako azken aldaketa hori azpimarragarriena da, 50 langile edo gehiagoko enpresen berdintasun-plana dagokion lan-erregistroan inskribatzeko betebeharra ezartzen baitu.

Aldaketekin jarraituz, komenigarritzat jo dugu hiru zerbitzu-pleguetan aipatzea, klausula espezifikoen balio zenbatetsiaren atalean, SPKLren 309.1 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoa:

> "*Prezioa gauzatze-unitateen bidez ezartzen denean, ez da aldaketatzat hartuko, baldin eta horrela ezarri bada administrazio-klausula partikularren agirian, kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutakoen kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian ematen den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jasotzen ahalko dira, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorako gastuaren igoera sortzen ez badute, BEZik gabe.*"

Obra-pleguetan gehitu den beste alderdi bat Enpresa Bermatuen Erregistroari dagokiona da, baldintza orokorretan adjudikatu aurreko dokumentazioa aurkezteko atalaren barruan. Horrela, klausula espezifikoen azpikontratazioaren atalean ezarritakoarekin bat egitea bilatzen da:

> "*Enpresa Bermatuen Erregistroa (EBE): Enpresa lizitatzaileek kontratuaren exekuzioaren zati bat azpikontratatuko badute, EBEn inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.*"

Baldintza orokorrei dagokienez, eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteari buruzko puntuan honako aipamen hau gehitu da baldintza-agirien eredu guztietan:

> "*Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuaren arabera, jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez egin ahalko dira. Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu*

> *bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuko dira.*"

Amaitzeko, Next Generation agirietan soilik eguneratzen da "*Finantzaketa bikoitzik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena*" eranskina, eta "*Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikulua*" kendu eta, haren ordez, "*Dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32.5 artikulua*" jartzen da.

**V.- ONDORIOAK.**

Hori guztia esanda, aldeko txostena eman zaie obra-kontratuen (prozedura irekia eta prozedura ireki sinplifikatua), zerbitzu-kontratuen (prozedura irekia, prozedura ireki sinplifikatua eta negoziatua) eta hornidura-kontratuen (prozedura irekia, prozedura ireki sinplifikatua eta negoziatua) administrazio-klausula partikularren eta Next Generation Funtsen finantzaketaren agirien zirriborroei. Zirriborro horiek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legera (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) eta aipatutako gainerako araudira egokituta daude.